

ITSASOKO ISTORIOAK

XABIER GALARRETA



Nafragoak, Albert Bredow (1828-1899)

© Marjinalia Bilduma
2000. urtea
Lege-Gordailua: SS-888/2000

KAPITAINA

Egunak joan eta egunak etorri, Virgen del Mar izeneko belauntzi zaharraren galera nola gertatu zen jakin genuen gero eta zehaztasun handiagoekin. Eta odol beltzean hildako Kapitainaren berriak Puerto Alegreko populazioa —populazio txuria behintzat— erabat kordokatu bazuen ere, Kapitainak bere buruari atxikita zeraman ospea ezin txarragoa zela-eta inor ez zen harrizuegi gelditu.

Gau hutsean, goian behean euria eta tarteka hodeiak jotzen zuela jakin ahal izan genuen hondamenetik bizirik irtendako Kung-Toto beltzari esker. Honelaxe, denon begi bistan azalduko gaiztakeriarekin bezala, orduan ere tragediari buruzko argitasunak azalduz joan ziren Kung-Totoren ezpainenatik, hala nola Minokitxi txinatarraren ahotik, bera baitzen onik ateratako bigarren eta azken marinela. Gainerakoak, hogeita hamahiru gizon guztira, betiko joan ziren itsas hondarrera, Kapitaina barne, noski.

Kapitaina taju txarrekotzat jo genezake, eta atzo goizekoa ez izan arren, zahartzarotik oraindik urrun zegoela esan zitekeen. Buruz jantzita egotea zer den inoiz jakin ez zuten horietakoa. Marinelen artean ospe handi handia zuten soinekoak janzten zituen beti: niki txuri-urdinak aingura bat josirik zeukatenak, feldro lodizko gorra urdina bixera eta guzti, kolore bereko jaka...

Edateko zalekeria zuen, eta ronez bustita, odolak burua hartzen zion edozein barrabaskeria egiteko gai izateraino. Batzuek ziotenez, Jose Maria kapitainak (hauxe zen haren izena) bere buruari *zu* esaten zion, bere burua askoan zeukala aditzera eman nahian. Autu-mautuak amaigabeak ziren Puerto Alegre herri eder eta zibilizatuan:

—Bide onetik jakin ahal izan dudanez, Kapitaina —horrelaxe deitzen baitzuten denek— Europako herri zahar eta txiki batekoa da...

—Euskalduna, bai. Euskaldun ugari izan dira lurralde hauetan, izan ere.

Berataz zekitena, ordea, nondik zetorren baino ez zen. Eta ez zuten erraza —ez horixe!— berri gehiagorik hartaz izatea, Kapitainaren iragana errezel lodi, goibel eta ikertezin batek estaltzen zuelako. Bestetik, Kapitainak ez zuen gizakia gogoko. Horregatik, berari hurbildutako edonori kilimetrak erantzuten zion, eta unti zama bati buruz hitz egiteko ez bazen, Jesus esan orduko bazeukan "txo aspergarria" pikutara bidalita.

Pleitarik merkeenak eskaintzen zituenenez, gainerako unti kapitainek bekosko ilunez begiraten zioten. Baina Kapitainaren uhasariak zergatik ziren hain merkeak ondo erraza da adierazten: marineltzarik gaiztoena zuen.

Hondamena gertatu baino lau egun lehenago, Kapitainari ohi baino sarriago ikusi ohi zitzaion kale xuriak alboka-alboka zeharkatzen, lau egun horietan barra-barra edan zuelako, nahiz hemen nahiz han, nahiz portuko tabernarik zorritsuenean nahiz herriko "txurien taberna"rik dotoreenean (Puerto Alegren arraza txurikoek

bazituzten beren biltoki propioak, non beltzek ez zeukaten sartzerik), gau aldera bere belauntzi baldarrera itzultzen zen arte, trinkili-trankala, txalupa txikia atzekoz aurrera gidatuz, arraunekin txipli-txapla.

—Lege zahar eta basatira dago moldaturik. Agure horrengandik ezin ezer onik atera —iruzkintzen zuen Rosario de Jimenez andreak te kikaratxoaz ezpainetara hurbilduz—. Egia esan, ez dakit zergatik uzten zaion bera bezain kaxkarra den belauntzi horren kapitaina izaten —eta hau esanda, bere senarrari, Puerto Alegreko gobernadoreari, begiratu zion, azken honek entzungor egin bazion ere.

Euskal Herriko tokiren batetik etorritako Kapitainak burua agertzen zuen gau aldera batik bat, beroa jadanik hasia zenean gaueko freskurarekin nahasten. Jai eta aste gauza bera egiten hogeitau urte gutxienez eman eta gero, aipatu lau egun horietan bestelako jokabiderik erakustea ez zen oharkabe pasatzeko modukoa izan, geroko batean Puerto Alegreko zenbait ahotsek gogoratuko zuten bezala. Eta zoro-moro barreiaturiko susmoez gain, armiarma-sarea izango bailitzan, zehazkizun jakinak atereaz joan ziren, pixkanaka-pixkanaka, horietako nabarmenena honako hau izan zitekeela agian: portuan Kapitainaren adineko emakume txuri batek masailean laztandu omen zion. Zoritarreko itsasoratzea baino hiru egun lehenago izan zen hau. Nor zen emakume hura ordea? Bertokoa ez zela duda izpirik gabe jakitera iritsi zen, Puerto Alegren mundu guztiak elkar ezagutzen zuelako. Badago aipatzen utzi ezina den beste zehaztasun bat: Kapitaina pozak ibili zen emakume harekin paseatu bitartean. Honek gauza

handirik argitzen ez duela pentsatuko du norbaitek, baina Puerto Alegreko inork Kapitaina irrika sekula ikusita ez zeukala kontutan hartzen badugu, bada ahuntzaren gauerdiko eztula ez dela onartu beharra dago, Puerto Alegrekoen ustetan, behintzat. Hala eta guztiz ere, izan, baziren Kapitainaren arazoa bere sintesi soilenera mugatzen zutenak, "Kapitainak lo zorrak dauzka, besterik ez" esanez, eta horrela pentsatzen zutenen artean, noski, Rosario de Jimenez andrea aurkitzen zen, Puerto Alegreko gobernadorearen emaztea hain zuzen.

—Nik —esan ohi zuen gobernadorearen emazteak—, nire gogoz bestera, gauzak zelan amaitu diren pozten naizela aitortuko dizut. Kapitainari onez onean esan zitzaiolako, oraindik bizirik eta hain hondaturik ez zegoenean, gure gizartean sartzeko. Beraz, gure gizarte txuria esku eskuan izan zuen, geuk eskaini genion bihotz bihotzetik.

—Egia diozu, maitea. Guk esan genion-

—Utziko al didazu hitz egiten? —gobernadorea hitzetik hartu zuen bere emazteak—. Bada esaten ari naizenez, Kapitainak eskerrik askorekin hartu beharko zukeen gure eskaintza hura.

—Hozkirri egiten hasia du —esan zuen gobernadoreak—. Berriketa honek guztiak bazkaltzeko gogoia egin dit. Goazen! —amaitu zuen zutituz, bere azken hitz horretan aginkera ahotsa nabari.

Kapitainak soinean beti eramaten zuen pistola bat gerrikoari lotuta, eta armaturik joatearen arrazoiak galdetzen ziotenei erantzuten zien hizlabur "zer gerta ere". Behin, belauntziko gizon beltz batek pistola zela eta galde egin zion maltzur:

—Ez zara gutaz fido, Kapitaina?

Eta Kapitainak, barrez leher gaizto eginez, ihardetsi zion:

—Baliteke eta ez liteke, gizon.

Esanik dagoenez, Kapitaina oso izaera garratzekoa zen, eta koipea zerion edonor etorrira ere utikan igortzen zuen. Puerto Alegreko gizartetik bidalitako salbatzaileek honetxegatik hain zuzen ez zuten inolako arrakastarik erdietsi Kapitaina beretar bihurtzeko ahaleginetan. Areago ere, Kapitaina bide onera erakartzeko ardua izan zuten mezulariek ez esatekoak entzun behar izan zizkioten Kapitain hezigaitzari, horien artean gobernadorearen emaztea bera ere kontatzen zelarik, Rosario de Jimenez andrea hain zuzen. Eta Rosario de Jimenez bezalako andreak beren golkoan gorroto sakon eta itzaliezina gordetzeko gizakirik aiprosenak izaki, Kapitainaren aurka gurgur ari ziren ohea husten zutenetik, Kapitaina haien ulermena (era adierazgaitzez, gainera) gainditzen zuen fenomeno bitxia zelako; baita beren bizitzetan behar zuten misterio bakarra ere. Rosario de Jimenez andrearen kasuan apurtxo bat ezberdin izan arren, aipatu andreak borroka latz batean sartzeko premia sentitzen zuelako, zeukan izaera aginduzkoari ihesbideren bat eskaintzearen edo. Kapitaina, ordea, hura aho bete hortzekin uzteko ausarkeria izandako bakarra zen, eta bera Rosario de Jimenez andrea zen, gobernadorearen berberaren emaztea alegia. Eta bestetik, gobernadoreari berari agintzen ziola ondotxo zekien, senarra eskutan zeukan eta.

—Nortzat hartu nau gizon horrek bada? Gobernadoreari berari ere itzala egin nahi ala? —esaten

zuen behin eta berriz Rosario de Jimenez andreak abanikoari eraginez—. Zazpi begiz ibili beharko du kapitain horrek nirekin. Alajainkoa!

Izan ere, Kapitaina aiko-maikoetan zebilen beti Puerto Alegreko gizarte txuriak antolatutako ospakizunetara ez azaltzearren. Eta hainbat aldiz errepikatuak zituen bere atxakiak jadanik inork "irensten ez zituela", Rosario de Jimenez andreak gehien ahoskatzen zuen aditza geure eginez:

—Ez naiz ni izango gezurtero horren atxakiarik *irentsiko duena*, ez horixe —esan ohi zuen sarri.

Keria guztioz gain, bazen besterik Kapitainaren izaera biribildu eta belzten zuena: esku-gorde izugarria zen. Beraz, pentsa beza irakurleak marineltza gaizto bat edukitzetik datozkeen on-gaitzetan, eta erants biezaio soldata kaxkar bat. Rosario de Jimenez andreak zioenez, "higiene psikikoa zer den ez daki gizon horrek", Kapitainari buruz, jakina.

Kapitainak edozein gauzari ondorioak ateratzeko zazpi ahalak egiten bazituen ere, bere moldagabezia hartan irautera zigorturik zegoen, etsita ez baina, munduari erakusten zion gordinkeria hartaz guztiak aup batean zituela baizik, jo eta jo besteen aurka —kausarik batere ez zeukala ulertzeke.

Edaten zuenean, Kapitainak Puerto Alegreko burdeletako bideari ekiten zion, eta behin halako baten barruan, "aukeran, onena jo ezak begiz" esaldi zakarra gogoan, goiko gela zikinetan galtzen zen bertoko emakume beltzen bat lagun zuela. Hau, Kapitainarentzat, errittoa bezalakoa zen, komunitatearekin harremanetan jartzeko bide bakartzat jotzen zuelarik ere. Emakumeekin

bortxakorra ez bazen ere, behinola ia kaiolaratu zuten emagaldutako epelak eman izanaren akusaziopean.

Ordea, zer ote zegoen Kapitainaren iraganean ezkutaturik? Istorio kontaezinen bat beharbada? Bestalde, hain urrutitik iritsitako Kapitainak —inguratzen zitzaion isolamendu zahar hura gorabehera— hunkiberatasunik eduki behar zuen, eduki ere! ez baitzen gizon hura gure humanitate honetako inboluzioaren seinale.

Kapitaina esku-ekerra zen. Eta honek ez zion nolana hiko mirespena ematen marineltza aurrean, beltzen artean batez ere. Horretaz aparte, bazuen *tik* bat ezkerreko begiari ere eragiten ziona, eta aldikako dardar batez jartzen zitzaiona agerian. Haren aurpegiari dagokionez, gogaldi txarrekoa zela zer esanik ez; eta ardura handirik gabe hazitako bizarraren kariaz basagizon itxura hartzen zuen, era harrigarriaz gainera, hondamenetik ihes egindako karlista jesuitazalearen irudia baitzekarren gogora.

Kapitain gehienei kostatzen zaie itsasoratzea; ordea gure Kapitaina, beti zegoen itsasoari noiz lotuko zain, eta halako moldez, ezen, gutxieneko pleita eskuratuta, jesus amenean abiatzen baitzen ur sakonetarantz, askotan bidaia kostuak ozta irabazirik.

Baten batek esan omen zuen Kapitainak naufragio bat izan zuela behinola, eta bidaiari untzia zenez, bidaiari asko eta asko galdu zirela itsas hondarrean. Eta tragedia honen erantzunkizunak adieraziko zuen —horrela hitz egiten zutenen artean, behintzat— gure Kapitain goibelaren izaera. Beste

batzuek, ordea, ez zuten sinesten Kapitaina errudun sentitzeko gauza izan zitekeenik. Hala pentsatzen zutenen artean Rosario de Jimenez andrea aurkitzen zen:

—Odol usteleko ardi galdua baino ez da. Errudun sentipenik *horrek?* Ja! Ezagutuko ez dut nik ba kaskailutzar hori.

Izanak izan, naufragioarena inoiz ezin izan zuten frogatu eta ondorioz dena gelditu zen berriketa hutsean.

Lehenago esan dugu Kapitainak ez zuela sekula barrerik egiten, baina barre antzekoa zen hotsa ateratzen zuen noiz edo noiz, hots honek gizaki gehienek *barretzat* jotzen dutenarekin zerikusi txikia zuela argitu beharra badago ere. Nolabait esateko, igelek kro-kro egiten duten bezala egiten zuen berak barre.

Behinola, gaueko ordu goiztiar batean, ixeka egin nahi izan zion gizon bati hala zuzendu zitzaion Kapitaina:

—Gorroto haut, alu hori, eta hilko hinduket oraintxe bertan. Hala eginez gero, berriz, legea atzetik izango nitek. Honetxegatik bakarrik ez diat egingo.

Gertaera horren biharamunean, Kapitainari ixeka egin zion gizon huraxe —Puerto Alegren inork ez zeukan lehenago ikusita, kanpotarra zelako— hilda agertu zen kaiko uretan flotatzen. Kapitainak gau osoa tabernatik ateratzeke eman zuela frogatuta utzi arren, herriak —ohi zenez— bere betiko adierazpen maltzurak bilatu zizkion gertatuari, Kapitainaren kaltetan, jakina, gobernadorearen emaztea —Rosario de Jimenez andrea hain zuzen— izan zelarik Kapitainaren ospea lainotzen saiatuena:

—Espetxera bidali beharko zenuke —esaten zion bere senarrari, Puerto Alegreko gobernadoreari—, espetxera!

—Baina, maitea —esaten hasi zen gobernadorea—, gau osoa tabernan eman duela argi eta garbi frogatu dio epaileari. Nolatan bada!—

—Isilik! —eteten zion emazteak hitzetik helduz—. Zeuk ere atera behar al duzu haren alde ala?

Eta gobernadoreak, begiak apaldurik, zerbait marmartzera ausartzen bazen, berehala egiten zion agirika hitzokin:

—Ken ezazu jarduketa hori hortz artetik!

Halako mementoetan gobernadoreak bihotz bihotzetiko begikotasuna sentitzen zuen kapitainarekiko.

Tabua eta sinboloa ez ziren Kapitainaren begietan oso ezberdinak, berak behintzat biak nahasten zituen, batere harritzekoa ez dena, zeren Kapitainak bere buruari jarritako helburuek baziruditen paperez eginak, eta eztabaidasun honek kili-kolo zeraman bizitzan zehar.

Zera esan beharra dago Kapitainaz: bizi zeneko bakartasun zikinak ez zuen asaldatzen; bai, ordea, aldameneko gizartetik iritsitako seinaleek. Kapitaina, gizartean integraturik bizi izan beharrean, gizarte horretxan *aldamenean* bizi zelako. Eta bere zokoratze horrek zazpi deabru ikusarazten bazizkion ere, labirinto goibel hartatik atera zezakeen haririk ez zuen inoiz eriden. Desesperoan iragandako urte luzeek Kapitainaren gizarima desitxuraturik zeukaten halako punturaino, non, Kafkaren elaberrian ez bezala, honako zera hau gertatua zitzaiola baitzirudien: egun batean, itxura izugarriko munstro bat, esnatzerakoan, begiak zabaldu eta, horrez egiaztatu ahal izan zuenez, gizaki bihurturik zegoen. Kapitainak antzeko sentimendua izan behar zuen bere buruaz, nonbait.

Komunikazio goseak, ordea, harreman taiugabeetara bulkatzen gaitu. Eta ondorioz, komunikazio beharrari zenbat eta gogorkiago jarki, horrek ezinbestez sorraraziko digun harremana gero eta taiugabeagoa gertatuko zaigu. Kapitain gixajoa! Komunikatzeko beharra hain zen harengan larria ezen munduari bere burua eman baitzion leienda bihurturik. Egiatan, mututasun hartara bultzatu zuenak, zena zela, oso gogorra izan beharko zuen, eta iraganaren harlauza soilik altxatuaz eduki genezake haren sekretu latzaren berri. Zoritxarrez, gure menetik kanpo dago horrelakorik egitea. Eta egitea bageneuka ere, apurrak baino ez genituzke erdietsiko. Jeneralean ordea, objektuaren jabe izan beharrean gaude objektuaren alferra ulertzeko.

Bere negozioan erakutsitako zintzotasunaren aldetik, berriz, hitzari eustea edo hitza jatea ez zen buruko minik eman ziezaiokeen gauzarik, zertzeladen arabera jokatzen zuela baizik. Eta merkatari batekin adostuz gero, ez luke pleitarekin ihes egingo, ez horixe! Baina parada edukita, amarrua sartuko zion bestea ez konturatzeko moduan, Kapitaina azeria baino maltzurragoa baitzen. Bestetik, itsas garraio bati lotuta zebilenean, serio samarra izaten zen, eta untziko gainaldean marinelei hots eginez ikusten ahal zitzaion, brankatik txopara bete betean ibilka. Luzeak suertaturiko bidaietan izan ezik, ron upeltxoari esker egundokoak harrapatzen baitzitu en nabigazio erdian. Eta halaxe egin omen zuen hondameneko gauean.

Egun hartan, Kapitaina gauez zen itsasoratzekoa. Goizean goizetik, Puerto Alegreko populazioa haize

kiskalgarri batek zeukan harturik. Gingiletatik zintzilik belarritakoak jantzita zeuzkaten marinel beltzak baino ez ziren ikusten, txuriak eta kreolak etxeetan baitzeuden, sapaberoari ihes egin asmoz. Kai inguruan, aspaldian hanka hautsitako emakumeek bezeroen zain zirauten lotan bezala —itxura umetsua zerakutsaten eme handi eta potoloak—. Nonbaitetik runbaren soinua zetorren. Nabigatu aurreko orduetan Kapitainak kopa bat edo beste hartzen zuen kai inguruko txiringitoetan. Eta okasio hura ez zen salbuespenekoa izan, arratsaldeko lau t'erdia izango baitziren Kapitainaren ziluetan patetikoa kaian azaldu zenean, itxura makal samarra eskaintzen zuen beraren belauntzia bezain goibel. Asentsiobelarrez egindako pozima usaina zerien tabernetako sukaldee, Puerto Alegren belar hori nahastuta zeukan isurki alkoholiko bat prestatzen oso trebeak zirelako, Kapitainari gustuko ez bazitzaion ere. Ipurtoholetan eserita, denbora baino lehen zahartutako andere zenbait ari ziren beren gizonen sareak ehotzen eta ehotzen, antigoaleko ohitura dibino bati jarraikiz bezala. Gutxira etorritako Kapitainaren gorputzara —lurralde haiek erabat ondo hartuta ez zeukatelako lekuko— azaldu zen halako batean, eta ehotzen ziharduen atso batek zeinadura egin zuen hura ikusi bezain laster. Kalea egiten ari zen emakume baten ondotik pasatzerakoan, entzun ahal izan zen:

—Hotzak zegok txakurtxo hau, Kapitain. Berarekin jolastu nahi?

Kapitainak, ordea, barraderarantz jo zuen jaramonik egin gabe. Eta emakume gajoari, minduta, entzun zitzaion:

—Gixon ezdeus alua!

Inork nabaritu ez bazuen ere, Kapitainari sudurziloak puztu zitzaizkion, hiraren hiraz, baina txintik ihardesteke aurrera segitu zuen, hautesle baten argazkia eta izena iragartzen zituen panfletoa —Puerto Alegreko hauteskundeak laster ziren— ostikada batez urratuz.

Itsasorapen orduan, egunean egindako beroari hego-haizearen etorrera erantsi zitzaion, marinelek zoritxarreko auguriotzat jo zutena, beltzek —gogorazi beharra dago marinel gehienak beltzak zirela— hego-haizearekin lotutako jainkotasun gaizto batean sinesten zuten-eta.

Puntu honetara helduta, ordea, hobe da Kung-Toto beltzari uztea gertaeren bilakaerari buruzko kontaktetaren haria.

"Nabigazioa, hasiera batean, trankil joan zen. Hiru egunez nabigatu genuen itsasegitik ez oso urrun, lehor sumenditsuak eskaintzen zigun paisaia begi bistan beti. Hego-haizeagatik ez balitz, lasai-lasai egongo ginatekeen. Laugarren eguna ere aurrekoak bezala iragan zen. Kapitainak agindu gutxi baina zuzen eta zehatzak ematen zizkigun. Bosgarren egunean, berriz, ia gizon guztiak —beltzak batik bat— asaldatu zituen zerbait gertatu zen, zera: untzi inguruan ibiltzen ziren itsastxorietarik bat hilda agertu zen untziko gainaldean, burua erabat txikituta zeukala, kolpeka eta amorruez hil balute bezala. Honek ikara handia sortu zigun geuri, beltzoi alegia, sorginkeriak erabiltzen dituen seinaleak ondo ezagutzen ditugu-eta. Horregatik, seigarren egunean "Ezer Ez" lurmuturrari buelta eman genionean,

aurrean zabaldu zitzaigun Ozeanoan sartu ginen kezka josita, beltzok batik bat, Kapitainak esan ohi zuenez: gu —beltzok, alegia— zozo samarrak garelako. Eta gau hartan bertan gertatu egin zen: hego-haizea gelditu eta zoratzeko moduko barealdi batek ordezkatu zuen. Itsasoak hitz gabeko ikuskizuna zirudien, eta handik laster, olatu txikitxoan eraginez, itsasgaina kizkurtzen hasi zen. Kapitainaren zekenkeria zela eta, marineleriak urri bizi behar zuen, eta halako mementoetan, hau da, arriskua gainera datorrenean, mixeria lagun duen itsasgizonak kaltea besterik ez dakar. Kapitainak, bestalde, hain sari aipatzen zuen Galtzagorri delakoak jakin ere badaki une aproposetaz baliatzen bere maltzurkeriak asmatzearren: lehenbiziko olatu handiak belauntzi zaharraren kaskoa jo bezain laster, Kapitaina egundoko mozkorra harrapatuta azaldu zen untziko gainaldean. Olatuak jo eta gero, untzi kulunkak gutxiagatik ez zuen Kapitaina erorarazi, ez ordea olatuaren oldarrez, ronaren eraginez baizik. Berehala olatu gehiago iritsi ziren, gero eta oldartsuagoak, itsasoko legea hautsi duen Kapitainaren bila etorriak bezala. Bien bitartean, Kapitainak ron upelatxotik edaten segitu zuen, zozotasun batean gero eta murgilduagoa, zubitik erorka ibiltzeraino. Zortzigarren egunak urratu zuenean, ia ez ginen konturatu, hain zen ilun eta goibel. Trumoi hots urruna untzi hartako agindu hots bakar genuen. Belauntziak zabu egiten zuen guztioi ikara sartzen zigun eran. Garraiatzen genuen laboreak kareletik jaurti behar izan genuen bederatzigarren egunean, egoera benetan larria zen-eta. Zama uretara botatzea Kapitainaren baimena gabe egin genuen, Kapitainak azkeneko bi egunak bere kamarotean emanak

zituelako, ezertarako atera gabe, jo eta ke upelatxotik zurrupaka. Itsasoa orro hutsa zen, orro gorgarria. Hamargarreneko gaua zen eta literalki esan daiteke marinel bakoitzak bere kasa jokutzen zuela, inoren agindurik gabe, eta zazpi ahalak egiten genituen hondora joko ez bagenuen. Baina satorlana hasita zegoen. Sotora jaitsia nintzen batean, bost gizon ikusi ahal izan nituen argizari baten kontrargitan, zurrumuru batez hizketan. Ikusi nindutenean, begira-begira geratu zitzaizkidan, eta nik judaskeria irakurri nien begietan. Joaten utzi zidaten mihierdi, beltz eta zozo samarra naizelako. Handik atera nintzenean, berriz, oso uste argia nuen gertatzen ari zenari buruz. Norbaitek Kapitainarengana jo zuen lau zizpak (untzi osoan lau zizpa baino ez genituen) falta zirela esateko. Baina Kapitainak, sukarrak jota edo, zerbait ulertezin marmartu eta bere kamaroteko atea zabaldu ere ez zuen egin nahi izan. Beltz ergel hau ere saiatu zen Kapitaina jartzen jakinaren gainean, matxinada giroaz ohar zedin eta marinelei sobera fidaturik ibil ez zedin. Alferrik ordea, erabat horditurik zegoen-eta. Lau-bost egun irauten zuten bidaietan Kapitainak ez zuen ia ezer edaten, baina hura bazen hamaikagarren eguna itsasoan! Nik ez neukan Kapitaina horren hordituta ikusita ezta lehorrean ere. Bihotzeko harrik ez dut beraz, Kapitainari ohararazteko ezina egin nuelako. Eta hamabigarren egunerako gizonak hain jota zeuden ezen kapitain bat baino zoroazain bat beharko zuketela. Horregatik, Kapitaina bere kamarotetik atera zenean itsasorratza eskuan zeramala, gauzak lehertzeraz zihozela ulertu nuen. Gainera, ekaitzak okerrera jotzen zuen eta honek erraztu egiten zuen prestatzen ari zena, zetorrena zetorrela. Dena

den, Kapitainak ez zukeen itsasorratza kareletik bota beharko. Itsastar zintzo batek ez zukeen egingo behintzat. Hura ikusi eta matxinadako buruek ez zuten ahalegin handirik egin behar izan beren lagunak xaxatzeko. Basakeria izugarritz, denak baileuden eldarnioak jota, Kapitainaren aurka oldartu ziren. Kapitainaren alde azaldu ziren bakanak —hiru gizon baino ez ziren— erdi hilik bota zituzten uretara, zizpako tiroz josi eta gero. Kapitainari egin ziotenaz oroitzen naizenean, ametsetan egin ez ote dudan galdetzen diot neure buruari. Beltz gizajo honek ulertzerik ez daukana da hainbat sastagai, aizto eta aizkora nondik atera ote ziren. Honek ez du axolarik ordea. Kontua da Kapitaina alderik alde sastakaturik, aizkoraturik eta zizpako tiroz josirik utzi zutela. Beren ekintza goibelari etsia hartu baliote sikiera! Ez, ordea. Horixe ezetz. Beltz ergel alu haiek Kapitainaren gorpua zatikatu eta JAN ere egin behar izan zuten!"

Halaxe amaitu zuen Kung-Totok bere kondaketa. Minokitxi txinatarraren bertsioari dagokionez, ezin izan diote orain arte gehiago hitz eragin (epaileari kontatuaz gain, esan nahi da). Eta batzuek diotenez, Minokitxi untziko sukaldaria izateak zerikusirik izan lezake bere mutukeria tematsu horrekin.

Kapitainaren oroipena, ordea, bizirik gorde zuen Puerto Alegreko populazioak, eta urte luzeak pasata ere, Rosario de Jimenez andreami —bertoko gobernadorearen emazteari hain zuzen— oraindik entzuten ahal zitzaion:

—Merezita zeukan, Kapitainak merezita zeukan. Bera bezalako itsaspiztiek ezin akabera onik eduki!

Nik, neure aldetik, hauxe baino ez dut erantsiko:
urrikal bitez gizonak ilargiko alde ezkutua ikusi duten
gizonez.

JOSE BALENZUELA

Nire aberrian ezagututako mixeria gorriari ihes egingo banion, modu bat besterik ez neukan: marinel gisa izena ematea untziren batean. Garai hartan, gaztaroaren gailurrean egonik, nire-nireak nituen ausartasuna eta ilusioa. Eta hala, portuko tabernetan argibide eske luzaz ibili ondoren, Jose Balenzuela izeneko kapitainaz galdetzeko esan zidaten, Tehuantepec-Panama-Valparaiso itsasbidea sarri-askotan egiten zuen batez alegia. Jaka zaharrearan gorderik beti eramaten nuen mapa atera, zabaldu eta... aho zabalik geratu nintzen: Ozeano Bareari gogor eginez, Hegomerikako kostaldea ia osorik!

Segundorik batere ez nuen alferrik galdu. Eta behin itsasuntzi haren aurrean, eta lanari emanda zebilen jendeari kapitainaz galdezka hasi baino lehen, untzian urrez grabaturiko letrak —untziaren izena osatzen zutenak, jakina— gelditu nintzen irakurtzen, ezbai batek ustekabea hartuta bezala: «Piedad del Mar», hauxe zen-eta untziari emandako izen xelebrea, gaztelera garbian hortaz asmatua —handik ibili ohi ziren untzi gehienek bezala, bandera ingelesa zein portugesa zekartenak ugari ere izan arren—. «Piedad del Mar» esan nuen nire artean zenbait aldiz. Sentimenari eragin nion eta irudimenari ordea hegan egiten utzi. Nire irudimenak, aldiz, ezer gutxi lortu zuen, izenak helarazten zidan artegatasun melankolikoan ito baitzitzaidan gogoan.

—Harrigarria izena, ezta?

Entzun nuen ahots bat nire atzetik.

—Zure tankera ikusita, igartzen dut lan bila hurbildua zarela hona.

—Egia! —erantzun nion labur, ezezagunaren asmoa neurtu nahian.

—Nola duzu izena? —galdetu zidan presarik gabe.

—Manu. Manu Goicoechea —erantzun nion distraitu ki, itsasuntzian nire arreta oro jarrita. Begitartean irriño bat margotzen zitzaio la o hartu nintzen, halere. Ez ninduen kezkatu ordea.

—Itsasoa dugu epaile zorrotz —jarraitu zuen ni han ez banengo bezala—. Baldintza batzuk jartzen dizkizu, eta ez badituzu errespetatzen, nahi denaren kontrakoa lortzen da. Jakingo bazenu zenbat galdera dauzkadan, bere ahalmenaz eta bere esentziaz, nire buruari eginak...

Zizpuru bat botaz, eguzki astun baten azpian dirdiratzen zuen itsaso zoragarri rantz jaso zuen begia.

Gizontxo bat zen, arreta handiegirik gabe jantzita; urdin koloreko marinel txanoaz gain, beste ezaugarri rik ez zeukan, janzerari dagokionez behintzat. Begiak arakatu nizekin, ordea, eta itsasoa bezain zabala zen distantzia bat kausitu nion begietan, itsaso neurrigabe haren zati bailitzan-edo. Ordea berri ketarako gogoa piztuta zeukan agureak —agure deitzen diot, batetik, urteetan nahikoa sartuta zegoelako eta ni artean oso gazte nintzelako, eta bestetik, garai hartan laster asko aguretzen nituelako gaztaroaren loreak zimelduta zeuzkaten guztiak, «agureak» izatetik adinez urrun egonik ere.

Bizar sarri, zuri eta desordenatua poliki-poliki

laztanduz —tradiziozkoa baitzen kapitainak bizardun izatea—, hizketari heldu zion berriro:

—Zerbait amankomun dugu itsastar guztiok. Arrazoi sakona dago tartean, itsasoa bezain sakona akaso. Mugatua ez den eremu etsai batean bititzeak izaera moldatzen dizulako. Edo beldurraren eraginagatik, agian... Auskalo! —eta eskuari airean eragin zion, euli aspergarriren bat espantatuz bezala—. Beldur mota asko dago —jarraitu zuen niri apenas erreparatu gabe—. Baina, zeri deitzen diogu doi-doi beldurra? —galdetu zidan bat-batean, hatz zimur eta handi batez ni enkainonatu eta nire aurpegira zuzen-zuzen begiratuz.

Eginak neuzkan irakurketak lagun, erantzun bat biribiltzera prestatu nintzen, nahiz eta agurea ordurako bazen hizketari berriro ere emana.

—Nor bait orpoz orpo dabilkizula sentitzen duzunean, hor, itsaso beldurgarri horren erdian zaudelarik...

Ezezagunari ikarazko keinu zirrarratsu batean kizkurtu zitzaion begitartea.

Aurrera baino lehen, ordea, aitor dezadan puntu honetan ez niola estimu handirik hartua agure nire ustez zoratzen hasitakoari. Halere, kontatzeko bere era hark onartu beharra daukat nahikoa liluratuta uzten ninduela. Baina bazen bestelako arrazoirik ere: sumatzen hasia nintzen agureak ukan bazuela "Piedad del Mar" itsasuntzi ederrarekin nolabaiteko zerikusia, eta beraz, hura nire alde edukita, errazago lortuko nukeela marinel lanetan hastea. Gauzak horrela, aldarte txarrik ez erakusteari iritzi nion zuhurrena.

—Zure adineko mutila nintzela, nire aita zenari

erakutsi nizkion itsasoratzeko neuzkan asmoak. Berak ez zuen, ordea, nire eskaria aintzakotzat hartu nahi izan, zeren portuan kabana bat baitzuen bere jabetzakoa, eta horren arabera, berak espero zuen ni ere merkataritzari lotzea. Kaskagor alua! —hots egin zuen ni erabat asaldatuz, ez bainuen uste norberaren aita zenarekiko halako arrenkura gorde zezakeenik inork.

Hitz haiek esanik, puska batean isilik iraun zuen, iraganeko atea zeharkatu eta oroipenetan murgiltzen denaren antzean. Halako begitarte zorabiatua zeukan, ezen, harekin hitz egiten hasi izana damu baitzitzaidan.

Haren aurpegiari erreparatu nion hobekixe. Bizar zarratu, txuriaren azpitik labirinto bat osatzen zioten zimurrek. Bazen besterik ordea, arras txunditurik utzi ninduena: gizon hura izututa zegoen! Ikara batean bizi balitz bezala alegia. Horretxegatik zirudien hain zaharra, beldurrak gaztetasuna zein serenitatea hondatuak zizkiolako —bai eta hondatu ere garaiz baino lehenago—. Baina ez zen ikara bakarrik. Oinazea ere bazen. Eta orduan hotzikara batek hartu zidan gorputz osoa, gizatasunaz kanpoko zerbait iruditu zitzaidalako harengan nabarmentzea.

Burua jaso nuen zero gordinerantz. Kaiоек altu xamar egiten zuten hegan, euria zetorrelako seinale. Eta izan ere, eurien boladatik oso urrun ez ginen. Oihan zabal bezain misteriotsuaren aldetik, hodei multzo bat hurbiltzen ari zen kostara. Eta trumoi hots erlatsa ere ailegatu zitzaigun, keinulari. Horrelakoxea da-eta eguraldi tropikala, eguzkia dirdiraka orain, eta, begien ireki-itxi batean, euria barra-barra duzu segituan, edota biak erdinahastuta sarri-askotan ere bai.

Hala ginelarik, untziko a zirudien batek hurbildu eta esan zion agureari errespetuzko ahotsez:

—Dena prest dago, nire kapitaina.

Hura entzunda, harri eta zur geratu nintzen. Gizontxo hura, beraz, Jose Balenzuela zen! "Piedad del Mar" untziko kapitaina bera! Ezin sinetsirik nengoen.

Agureak, hau da, Jose Balenzuela kapitainak, presakako keinu edo hitz lasterrik gabe, buruari eragin zion gora-behera, erantzun bakar gisa. Gero, ni besotik harturik, bere begi tristeak nigana jaso eta esan zidan xamur, anaia zaharrak anaia txikiari bezala:

—Hemen duzu aukera itsastar bihurtzeko.

Hitzik gabe abiatu untzirantz eta, zubitok pasata, unti barrura inguratu ginen. Nigandik hiru bat metrora geratutako lehorrera begiratu nuen. Eta orduantxe sumatu nuen, zera, nire patua, untziko pasarela hura bezain arina eta dardaratia zela. Eta lehorra ezezagun egin zitzaidan, zerbaitekiko zilbor hestea hautsi izan banu bezala, bat-batean.

—Orain, berriz, ez daukazu marinel gisa bizi beste erremediorik.

Hitz horiek esaten zituenari begiratzeko bueltatu nintzen. Gizaseme sendo eta gihartsu bat ur-upelaren ondoan zegoen eseririk, sagar bat hortzikatzen. Begi iheskorak zituen eta ez zidan begiratzen. Larruazala ere belztua zuen eta itsas kontuetan asko-ikasia zirudien. «Halako gizon bat ez nuke etsai eduki nahi» pentsatu nuen neure golkorako. Izan ere, haren mugimendu

patxadatsu haiei tentsio eutsi bat zerien, eta nirekin zakar ez jokatu arren, gizon gogortua eta neketan zaildua ematen zuen.

Zerbait erantzuteko, bota nion nik:

—Merkatariak eta emakumeak bizi dira pozik lehorrean.

Burua ezker-eskuin mugituz, erremediorik ez daukaten horietakoa banintz bezala, ihardetsi zidan berak:

—Gazteak ero bezain ausart! —eta sagarraren muskila bota zuen kareletik, keinu nagi batez.

Hain zen ixila gaua, ezen, uretan eragindako hots ttikia entzun bainuen. Gauak, gau izarrez zipristinduak, bukagabe zirudien. Ondoren begiak itxi nituen, nire zorion abstraktu hartaz hobeto gozatzearren.

—Mutila ez zenuke asalatu behar, Anto.

Ahotsa ezagutu nuen, mastil batek proiektatutako itzalean ezkututzen bazen ere. Jose Balenzuela kapitainarena zen, nire pentsamenduetan "agurea" deitutakoarena hain zuzen.

Anto delakoak altxatzekoa egin zuen, baina kapitainak bere hartan jarrai zezala eman zion keinu batez aditzera. Ni honetaz harrিতuta nengoen, pasadizu oso gogorrak belarritaratuta baineuzkan untzietako tratu txarrak zirela-eta. Ordea untzi hartan bazen nork bere kabuz ihardungo balu bezala, diziplina eta lanerako gogoia berez ezarrita baileuden-edo. Dena dela, ohitzen hasita nengoen gauza ezohikoetara.

—Eguna inoiz arturratuko ez duela ematen dit...

—esan nuen barrutik hartuta nindukan poz hordigarriari ezin eutsiz.

—Ai, hori posible balitz, eta bake honetaz betiko

gozatu...—erantsi zuen Jose Balenzuela kapitainak bere ahoskera ausente hartaz—. Zoritxarrez, gertatu ere berriro gertatuko da...

Hitz haiek entzunda, gogoia erretu zitzaidan asalduraren asalduraz. Gainera, lehorrean atzemandako beldur bera antzeman nion oraingoan ere, eta ez soilik agureari, baizik eta Antori berari ere.

—Ez dago ihes egiterik —sententziatu zuen Antok nire harridura areagotuz.

Nekosoa gertatzen zitzaidan misterio hura guztia ulertzea. Hortaz, Antok esandakoa gogoan, esaldia nire egin eta harrituarena eginez galde egin nion:

—Ez dagoela ihes egiterik, *zeri?*— eta indar bereziz ahoskatu nuen azken hitza.

Begietan isladatu zitzaion beldurra izan ezik, ordea, ez zidan besterik ihardetsi. Eta konprenitu nuen gizon haren sekretuetan sartzerik ez zegoela. Zorionez, kapitaina bera etorri zen niri laguntzera.

—Badira sekretuak... —hasi zen dudati—, bizirik eta ustelduta irauten dutenak, urte luzeetan ere... Lehenago ala beranduago jakin beharko duzunez, hobe ahalik eta lasterren kontaktzea.

—Kapitaina...! —hasi zitzaion Anto ahul protestaka. Baina Jose Balenzuelak isilarazi zuen eskuaren keinu batez.

Isiltasun haren erdian, gaua deika eta deika genuelarik, taupa azkarragoekin hasi zitzaidan bihotza. Eta olaxtek, itsasoaren luze-zabal guztian, zurrumurru etengabe bat helarazten zidaten nire larrimina —baretu beharrean— areagotuz.

—Errukia lehenago erdiesten da itsasotik

gizakiongandik baino —ekin zion untziko kapitainak.

—Entzun duzue!!! —deiadar egin zuen bat-batean Antok ikaraz.

—Zer du? —galdetu nuen nik umoretsu izaten saiatuz.

Han ez zen, halere, txantxetarako abagunerik. Kapitaina bere senetik irtenda bezala baitzegoen aiduru, ilunetik zer agertuko zain-edo. Besoko ileak laztuta neuzkala ohartu nintzen.

—Ez, ez... —marmartu zuen Jose Balenzuela kapitainak—. Halako gauetan ez dira normalean azaltzen...

—Azaldu —moztu zion besteak—, nahi dutenean azaltzen dira.

—Jainkoarren! —hots egin nuen gehiago ezin agoantatuz—, baina *nortzuek* azaldu beharko lukete!!!

Arnasari eusteko gauza ere ez zela, eta hitzak ahoskatzeko indarra ere galdurik, ozta-ozta asmatu zuen zera esaten:

—Beraiek! Beraiek!

Eta ilunerantz seinalatzen zidan dardarek hartutako esku batez. Nik, begiak ertitxita zerbait ikusteko ahaleginetan, ez nuen betiko gaua besterik nabarmendu. Beraz, itsas bakardadeak eta esperientzia latzek burutik jotako batzuk ez ote ziren, hasi nintzen nire baitakoari galdetzen.

—Joanak dira —entzun nion Antori, ahapeka eta izuaz oraindik.

—Baliteke... baliteke... —ihardetsi zion kapitainak.

—Hobe lotara erretiratzea... —marmartu nuen

nik guzti harekin neka-neka eginda. Baina agureak ez zidan joaten utzi, baizik eta mahukatik heldu zidan urduritasunez.

—Ez joan oraindik. Badakit-eta zertan pentsatzen ari zaren: burutik jauzitako gizajo batzuk garela, ezta? Istorioa entzundakoan, berriz, ez duzu berdin pentsatuko. Zin dagizut. Eta gainera, uste dut zuri esplikazioren bat zor dizudala.

Eta halako antsiaz eskatu zidan non ez bainuen kausitu alde egiteko adorerik, haiengandik aldendu eta guzti hartaz ahazteko irrikitan banengoen ere.

Zerua noizean behin izar-uxo batek zeharkatzen zuen arin bezain zoro, eta gaua sakon eta zabal iruditu zitzaidan, hondorik gabeko leizearen antzeko.

Ekin zion, ordea, Jose Balenzuela kapitainak bere kontaketari, eta nik, zazpi belarriekin gerturik, misterioaren nondik norakoa azkenez azaltzera zihoakidala pentsatu nuen nire kontsolamendurako.

«Orduko hura aspaldi batean gertatu zen. Halere, lotsa baino sakonagoa den sentimenduaren aurrean makurtu beharra daukat, hartaz oroitzen naizen guztietan. Eta uneoro datorkit burura, nire zoritxarrerako. Dena dela, «beraiek» ere hortxe daude, noizbait ahaztuko balitzait.

Zu bezain gazte, behintzat, banintzen garai hartan. Ai! Urteen joan-etorriak estal dezake behinolako itxura, baina ez arindu bihotzaren pisua. Mila zortziehun eta hirurogeita bian ginen, eta nire aita limurtzea

lortuko nuelakoan, itsasuntzi eder eta eraiki berri bat erosi nuen. Nire aitak, ordea, batetik itsasoarekiko nire grinarekin zerikusirik nahi izan ez zuelako, eta bestetik gauzak ezkutuka eta berari kontsultatu gabe egin nituelako, ezertan ere ez laguntzeko bere erabakia helarazi zidan. Eta horrelaxe aurkitu nintzen bat-batean zorrez josita, untzia berriro saldu edo untzijabeari itzuli beharrean, ordura arte ordaindutakoa ere galduz.

Niretzat hil ala bizikoak ziren egun haietan, deabrua bera etorri zen nire desesperoan tentatzeko. Eta deabruarekin batera, beltz-tratalariak ere bai. Izan bitez horrelakoak betiko madarikatuak! Nola dakien fatalitateak abagune egokiaz probetxatzen... Ordea nork esango ziekeen ezetz, halako estuasun batean egonik! A, kastigua mereziko nukeen hargatik, baina... «Beraiek» izan ziren kastigua jaso zuten bakarrak. Eta nire eskutik gainera!

Lehen "untzi zama" Afrikako portu batean gauzatu zen. Berrehun bat ziren, emakume eta haurrak tarteko. Gustura asko jarriko nintzateke orain haietako baten tokian! Iragana ez dago aldatzerik, ordea... Berrehun gizaki ziren. Eta nik banekien haiek «gizakiak» zirela, eta ez basapiztiak, tratalariek halakotzat jotzen bazituzten ere. Hain gazte ez banintzen izan, agian... Ze erraza den, halere, doilorkeriak gaztaroa dela-eta zuritzea...

Ez ginen São Francisco do Sul-etik milia batzuetara baizik, noiz-eta ekaitz ikaragarri batek harrapatu baikintuen. Nire lehen ekaitza itsasoan zen hango hura! Lehena! Kontramaisua izan ezik, denok ginen oso gazte eta hasi berriak lanbide hartan, ofizialak

esan nahi dut. Eta zoritxarrez, itsas kolpe gaizto batek sekula eta betiko eraman zigun kontramaisua, zubitik erortzen ikusi baikenuen eta segituan uretan desagertzen, ezer egin ezinean.

Zer egin genezakeen ba? Hain gazteak, hain ezjakinak, hain IKARATUAK ginen!! Jakingo nuke, gaur egun, untzia esku trebeaz gobernatzen. Garai hartan, ordea, den-dena neukan ikaskizun. Ez nekien untziko aurrealdea olatuekin batera abiarazi behar nuenik, haizeak atzetik jo arren. Eta oihalak jaitzarazteko aginduak ere berandu eta dudati eman nituen, jadanik bela gehienak urratuta eta atzeko masta erortzear zedularik. Hondamen hutsa! Guztiok kontramaisua bezala bukatzera gindoazela pentsatu nuen ikaraz. Egunsentia urratu orduko jotzen nuen nire burua hildakotzat.

Halako batean, oraindik harri eta zur uzten nauen hoztasunez, hango egoera hartatik salbatuko gintuen irtenbidea otu zitzaidan. Ez al ziren berrehun gizajo haiek, beltzak alegia, basapiztiak bezalakoak? Eta noiztik izan dute halakoek arimarik? Ez al dugu «sakrifizio» hitza aipatu ohi animalien hiltzeari gagozkionetan? «Hilketa» hitza ez al da bakarrik gizakiekin erabili beharrekoa? Berrehunen bat ziren!!! Berrehun bider 70 kilo, batez beste, ez al zuen horrek ematen 14.000 kiloko «pisu alferra»? Botatzeko agindua eman nuen. Denak. Emakumeak eta haurrak barne. Banan-banan. Negarrez eta deiadarka, horrorez eta oihuka bota genituen itsaso haserre-bizi hartara. A, iritsia nengoen nire gizatasunaren azkenera!

Harez geroztik ihesi nator oroitzapen hartatik.

Itsaso honetan azaltzen zaigun errealitatea, ordea, errealitate madarikatua da, untzi hau bezain madarikatua nonbait, eta etsi besterik ez dago. «Beraiek» beti hortxe daudelako gaua noiz hedatuko zain, sorgin laino baten atzetik, loguraren errezelak ere urratuz... Beraiek! Berrehun errukarri haien ARIMA ERRATUAK! Kapitain koldarraren bila etorriak! Bizirik ala ustelduta ote dauden... auskalo! Arratsaldearen azken orduan, gauaren erdian, goizaldeko lehen uneetan... Deika eta deika euren desolamendu horretatik! Ez zutela tratu txar hura merezi, haurrak sikiera salbatzeko... Egunetan, hilabeteetan, urteetan berandutzen den hilzoria da hau...».

Kontaketa izugarri hura entzutearekin batera, bihotza hautsita geratu nintzen. Eta hain nengoen zirrara batek hartua, zerbaitekin estropezu egin nuela, eta erortzerakoan buruan kolpe gogorra hartu. Izarrak tupustean desagertu eta ilun beltzean murgildu zen gaua. Arestiko haize freskoa bero eta heze sumatu nuen jarraian. Eta konturatzerako, ezerezetik-edo sortutako laino mordo bat —lodi bezainitsu— nagusitu zen ingurumari osoaz. Luze gabe, hots bat iruditu zitzaidan entzutea, untzietako zuraje ustelduaren eta burni herdoilduen antzeko. Jainkoa lekuko ni sekula ez naizela sineskerietara batere emana izan! Hantxe zeuden ordea!! ARIMA ERRATUAK!! Itsas hondarrean aurkitutako untzi naufragatu batez jabetuak ziren. Eta gizonak zein emakumeak zein haurrak untziko gainaldean zeuden

zutik, den mugimendurik txikiena ere egiteke. Eta untzia-aren izenak, suzko hizkiz grabatuak, holaxe zioen «Venganza del Mar». Eta beltz arrazakoak ziren denak. Berrehunen bat gutxienez. Hildako aurpegi haiek! Aurpegiak more koloreekin, itotakoan antzera! Aurpegietako begiak zulo bilakatuak, arrainek janda!! Eta bat-batean, arau ulergaitzen bati jarraikiz bezala, zinkurinka eta intzirika hasi ziren denak batera, eta erotzeko modukoa zen hura! Negar-zotinak eta amorrutzkoak ailegaitzen baitzitzaizkidan elkarren artean nahasturik. Eta ez daukat itxurak egiten ibili beharrik: ni ikarak akabatzen nengoen. Eta nirekikoak bukatutzat emanda neuzkan. Batez ere, gugana hurbildu eta, banan-banan, gure untzira pasatzen hasi zirenean! Eta nik zer nekien ba, kapitain koldar hark egindakoaz! «Nire larruazal txuria erdibanatzen dut nik berarekin, eta ez besterik!» oihukatu nien. Baina hitz alferrak ziren nireak, mamuak jadanik urrats eskasetara baineuzkan, beren beso haragi puskaz beteak nigana luzatuaz! «Atzera! Joan zaitzte, madarikatuok! Ez al duzue aditu ala? Ene! Ene!»

Begiak ireki nituenean, amesgaizto haien artetik abiatu nintzen errealitaterantz.

—Nora ote dira joanak? —hasi nintzen galdezka.

—Lasai, mutiko. Dena pasa da-eta. Lasai.

Jose Balenzuela kapitaina zegoen nire ohe ondoan. Nik oraindik espektroengandik nola libratuko beste ezer ez nuen buruan.

—Untzi guztian barrena sartu dira! —oihukatu

nuen ohean jauzi bat eginez.

Kapitainak eta Antok berehala etzanarazi ninduten berriro, hitz lasaigarriak esatearekin batera:

—Bart gauean soka batekin behaztopatu eta kolpe gogorra hartu zenuen buru-buruan —adierazi zidan Jose Balenzuela kapitainak.

—Susto ederra eman diguzu —erantsi zuen Antok bere ohiko seriotasun hartaz.

—Ikusi egin ditut! Hemen bertan zeuden... Mamuak!!!

Agureak eta Antok elkarri begiratu zioten hitzik gabe. Gero, kapitainak zera besterik ez zidan esan:

—Hobe duzu lotan segitzea. Hiruzpalau egunen barruan izango gara Papagayoen Irlan, eta sendagile batengana eramango zaitugu azterketa bat egitera.

Lanak izan nituen begiak itxi eta loak hartzen. Eta egia esanda, loaldi arin eta sukartiak kenduta, begirik ez nuen batu, zeren begiak itxi orduko berriro azaltzen baitzitzaizkidan espektro ikaragarri haiek.

Nork esango halakorik egiteko kapaz izan zitekeenik, hain itxura onbera horrekin, Jon Balenzuela kapitaina! Berrehun gizaki botatzea zaborra balira bezala! Emakumeak beren hurrekin!! Horrelakorik!

Amorrualdi hauei, ordea, barkamenaldiak zetozkien atzetik. Zeren kapitainari erabat damaturik nabari baitzitzaion, bai eta oinazeztaturik ere. Bestetik, esker txarrekoa sentitzen nintzen hura zela-eta, nirekin gizalegez eta jator jokatua zuelako, eta haserre keinu edo hitz zakarrik gabe agintzen zien untziko marinelei.

Baina, hala ere, garbi asko ikusi nuen zer egin beharra neukan: lehorrera orduko abandonatuko nuen

untzi madarikatua. Denbora gehiagoz erabaki bat hartu-
ez-hartu ibiltzerik ez zegoen, egun bakanetan iristekoak
baikinen Papagayoen Irlara. Eta han bertan pentsatu
ahalko nuen polikiago nire etorkizunaz.

Despedidako ordura iritsiak ginen, eta agurea
erorita zegoela ohartu nintzen, erori samarra gainera.

—Uzten gaituzu, beraz? —zuzendu zitzaidan
begiak itsasoan tinko zeuzkala—. Badakit zer pentsatzen
ari zaren. Mesprezatu egiten nauzu, ezta? Ez pentsa,
ordea, koldarkeria eta balentria hain desberdin direnik.
Askotan, ausart xamarra izan behar da-eta koldarkeria bat
egiteko.

Nire begietan islatutako alarma keinua ikusita,
hurrengo hitzoi ekin zien presaka:

—Ez, ez naiz nire burua zuritzen ari. Abstrakzio
hutsa da. Beldurrak eragindako abstrakzioa beharbada.
Gazteluak bezain handi diren olatuez inguraturik
zaudenean, beldurrak hustasun bat irekitzen dizu oinen
aurrean. Eta bertatik irristatzen zara esku ikustezin batek
bultzata-edo. Hortik aurrera, gizatasuna hondatu eta
bizirauteko senari baizik ez diozu jaramon egiten.

Une batez isildu zen. Nik, betarik eman gabe,
buruan zebilkidan galdera jarri nion aurrean:

—Zergatik... zergatik ez diozu uzten
nabigatzeari? —eta beldur nintzen nire galdera hura
ausartegi ez ote zen izango.

—Bai, askotan pentsatu izan dut... —erantzun
zidan berak gogo onez—. Baina ezinezkoa da, erabat.

Itsasoaren beharra daukat, edo itsasoarena baino, itsasoko arriskuena: ekaitzak, enbatak, haize zirimolak, olatu erraldoiak... Orduantxe bakarrik ulertzen dut zergatik egin nuen! orduantxe bakarrik sentitzen naiz ausart! A, instant horietan! Untzia hondora joan-ez-joan dagoelarik... Zer axola dit niri, horrelakoetan, burges zintzo eta buru-motz batek nitaz pentsa dezakeenak!

Kapitainari, mintzatu ahala, txinpartak ateratzen zitzaizkion begietatik.

—Beldurraren erresuman giza legeak ez du-eta piperrik ere balio! A, ekaitzak bilatzen ditut... ba al dakizu zergatik? Bakea horrela bakarrik aurkitzen dudalako; barneko harra horrelaxe bakarrik isilarazten dudalako.

Poltsikotik eskuzapi bat aterata, aurpegiko izerdia xukatu eta astia hartu zuen aurrera baino lehen. Nik ez nion hitzetik heldu, haren hitzek sorginduta nindukatelako. Eta jarraitu zuen, ahoskera nekatuaz:

—Beldurra dut opio, bai. Eta biriketan zehar hedatuz doakidala sumatzen dudanean, bada orduan bakarrik begiratzen ahal diot ispiluari lotsarik gabe...

Nire bizitzan lehenengoz, agian, giza bihotzak zoko-moko ugari eta zabalak izan ditzakeela ohartu nintzen.

Kapitainak, solasa bukatutzat emanaz, bizkarra eman eta poliki-poliki abiatu zen "Piedad del Mar" bere itsasuntzira.

—Bedi Jainkoa zurekin —esan nahi izan nion agur gisa. Nire ezpainak, orde, apenas mugitu ziren, otoizka bezala. Eta beraz, hitzak ez ziren kapitainaren belarrietara iritsi, baizik eta haizeak berarekin eraman zituela, jostari.

Niri dagokidan bezainbatean, Papagayoen Irlan egun batzuk pentsakor eman eta gero, etxerakoa hartu- ez-hartu egon banintzen ere, azkenez erabaki nuen berriro itsasoratzearen aldeko apostua egitea, harez gero itsasoak sorginduta bainengoen, eta ez nukeen jakingo bestelako ogibide batera burua moldatzen. Horretaz gain, gau hartan ikusitako espektroak eta abar, erorketak berak eragindako amesgaiztotzat jo nituen besterik gabe, eta denbora lagun, argiaren eta ilunbearen artean dagokeen mugaz ahaztu eta bizkarra eman nien tenore hartan bizi izandako eldarnioei.

Bestetik, Jose Balenzuela kapitainari dagokionez, urteak pasata izan genuen haren desagerpenaren berri. Ekaitz izugarri batek galdu omen zuen, Valdibiako portutik milia eskas batzuetara zelarik, Txileko kostaldean alegia. Naufragiotik ez zen inor onez atera, nik dakidala behintzat. Eta batzuek diotenez, ekaitz hartan, Jose Balenzuelaren untziaz gainera, beste untzi batek ere jo zuen hondora ingurumari berean, erreskate lanetan lagundu zutenek bi izen aurkitu baitzituzten, egurrean grabatuak eta distantzia gutxira biak. Hondoratutako itsasuntzien izenak ziren, noski. «Piedad del Mar» zen bata, eta... «Venganza del Mar» bestea!!

KONTU-KONTARI ITSASOAN

Bidaiatzeko nire grina zela-eta erraiak erre beharrez egon nintzen, harik eta hogeit hamar urteak bete nituen arte. Munduaren zabala ezagutzeaz gain, beste helbururik ez nion existentziari antzematen. Nire gurasoek, berriz, nirekin nekeak eta bi pasa eta gero, ikusirik ez zeukatela modurik ni nintzen zaldi urduri eta gaztearen uhalak maneiatzekorik, men egin zioten azkenez ordura arteko nire nahiari: bi-hiru urtez arituko nintzen munduan zehar bazterrak kurritzen. Ondoren, eta epe hura amaituta, etxerakoa hartuko nuela hitz eman nien trukean, familiako negozioaren jarraipena horrela bermatuta uzteko —itsas merkataritza kontuetan iharduten zuen-eta nire aitak.

Joxe Mari Elizondo duzue nire izena, eta Pasai Donibanen jaio nintzen mila bederatziehun eta hamalau garren urtean. Itsasuntzien joan-etorrietara, beraz, esan daiteke ohituta nengoela txikitandik bertatik ere. Eta halaxe zen, bai; Pasaiako herria itsas merkataritzako gune garrantzitsu bilakatuta baitzegoen ordurako.

Nire aitak, lan kontuak zirela-eta nola itsasuntzi askorekin harremanak zeuzkan, merkataluntzi eder eta eraiki berria aurkitu zidan. Eta horrelaxe abiatu nintzen, bihotza ausart eta begiak alai, Ingalaterra zaharrerantz, hango herriak ezagutzeko irrikan bainengoen.

Merkataluntzia izan arren, bidaiari gisa eman nuen itsasaldi osoa. Eta bertako kapitainak, Mikel Arruabarrena jaunak, jaiotzez zumaiarrak, nire aitaren

aspaldiko adiskide mina izanik, zazpi ahalak egin zituen ezeren falta izan ez nezan eta ahalik eta erosoan egon nendin, bidaiak iraundako denbora osoan buruan ia beste kezkarik ez edukitzeraino.

Halako batean, itsasoa bare eta gaua abegikor zirelarik, solasari ekiteko gogoia piztuta, galdegin nion Mikel Arruabarrena kapitainari:

—Kontatuko al didazu inoiz gertatu zaizun istoriorik xelebreena?

Kapitainak, kokotsa estaltzen zion bizar luze zarratua laztanduz, puska batez pentsakor egon ondoren, horrela ihardetsi zidan:

—Ez dakit ba xelebreena ote den, baina badago bat zeharo hunkitu ninduen. Nahi baduzu, horixe kontatuko dizut. Eta entzundakoan, zeuk juzkatu ahalko duzu merezi izan duen ala ez.

Nik, noski, ez nion oztoporik jarri nahi zuena konta zezan. Beraz, ezin ahaztuzko istorio hura entzutera prestatu nintzen, hartara zazpi belarriak jarrita.

—Itsasoa arras harroturik zegoen batean gertatu zen. Hornos lurmuturra ari ginen zeharkatzen. Bai eta kostata zeharkatu ere, Atlantiar Ozeanoko eta Ozeano Bareko urek bat egiten baitute toki horretan, korronte izugarriak eta abiadura handiko haizeteak eraginez. Hotza ezin dezakezu pentsa ere egin zenbaterainokoa den. Zeren Antarktida ez baitago urrun, eta noiz edo noiz iceberg erraldoiak ikus ditzakezu untzitik metro eskasetara.

—Bai —eten nion nik—, Drake itsasartea ere hortxe dago. Eta Suaren Lurralde, eta Magallaes itsasartea, eta Falkland edo Malvinak, eta—

—Nahikoa! Ja, ja. Nahikoa! —barre egin zuen Mikel Arruabarrena kapitainak—. Geografia klaseak hartuak dauzkazu zure kabutan, ezta? —eta barre gehiago egin zuen.

Gero, itzalita zeukan pipa piztu eta kontaketa ren haria berreskuratuz, jarraitu egin zuen:

—Gautu egin zen. Ekaitzak, ordea, bere horretan zirauen. Ustegabea n, bengala batzuk ikusi genituen zeruan pindarka. Bi, zehatz-mehatz esanda. Untziren bat gorriak ikusten ari zen, dudarik gabe. Hortaz, itsasoko legeari men egin genion, eta neketsu egin bazitzaigun ere, lortu genuen azkenez argiak piztutako eremura hurbiltzea, ahalik eta laguntzarik gehien —nola ez, ba!— eskaintzeko esperantzaz. Iristerako, ordea, gau zakarra besterik ez genuen topatu. Bengala bat ere bota genuen, beste untzikoek jakin zezaten gu han ginela, haien biziak gureak bezala zaintzeko gertu. Baina haizea zirimola gisakoa zen, eta, oldarkor, amen batean aldendu gintuen bertatik. Hargatik ez ginen harritu beste bengala bat ikusi genuenean... gu ginen tokitik baino dexente urrunago. Eta okerrena zen gure atzean zeudela oraingo hartan.

—A, bai! —hots egin nuen nik—. Ekaitza denean, untzi batek denbora askotxo behar du buelta osoa emateko. Zirkulu handiak egin behar dira, eta horrela ere, beti ez dago hori lortzerik, itsasoa oso zakar badago, batik bat.

Kapitainak barre algara bat jaurti zuen berriro, aldarte onez. Eta itsasoari buruzko nire *ezagutza zabal eta sakonak* gorai patu zituen, txantxetan seriotan bainoago. Gero, kontatzeari ekin zion berriro:

—Gaua, beraz, horrelaxe pasa zitzaigun. Bengala

bat non, gu hantxe. Ezin zitekeen ordea. Bengala bat botatzen genienetan, beste puntu batetik erantzuten ziguten beti. Gainera, guk, kostata ere, baina eduki bageneukan untzia gobernatzea. Besteak, ordea, bazirudien olatu eta korronteen jostailu zirela.

—Ez zenuten topatu, orduan?

—Egunsentiko lehen argi printzak atera orduko —jarraitu zuen nire galderari jaramon egiteke—, ekaitza poliki-poliki baretuz zihoala ematen zuen. Beraz, bila jarrai zezatela agindurik, pare bat orduko loalditxo egitera gorde nintzen, gaua osorik pasata bainean begiak batu gabe.

Puntu honetara helduta, Mikel Arruabarrenak hatz bat jaso niganantz eta begi keinu batez esan zidan, umoretsu:

—Lehenbiziko aholkua: egoera zenbat eta zailagoa izan, burua orduan eta freskoago eduki behar. Eta horretarako, lo aspertu bat egitea baino gauza hobegorik ez dago munduan, laburra izan arren.

Nik buruari eragin nion gora eta beheara, baiezko moduan. Eta berak kontaketa eten zuen, pipari pafa-pafa batzuk ateratzeko. Merkataluntzi baten argiak ikusi genituen milia batera-edo. Urrun ziren arren, tutukada batez agurtu gintuzten. Gauari ateratako kexu antzeko iritsi zitzaigun soinua, distantziak eta olatu bihurriek amatatua. Gure untziko tutuak besteari erantzutean, ordea, gaua urratu izan balitz bezalako inpresioa jaso nuen, hain ozen eta asaldagarri entzun genuen. Gaueko isiltasun jainkotiar hartan dena zegoen tokiz kanpo. Baita gure ahotsak ere.

Kapitaina, bere kontaketaekin jarraitu aurretik,

beta hartu eta loak errendituta erori zeneko puntura itzuli zen:

—Behin itzarrita, lehen ofizialak eman zidan egoeraren kontu. Zoritxarrez, ez zegoen berririk beste untziari buruz. Ezta arrastorik txikiena ere, urak zorrotz arakatu bagenituen ere, naufragio hondarrak nonbait ikusiko zain. Itsasoa unetik unera hobetuz zihoan. Goiza lanbropean zegoen ordea, eta honek zailago egiten zuen erreskate lanak antolatzea. Bat-batean, untziko jagoleak oihu bat bota zuen: «Iceberg bat eskuin aldetik!».

—Iceberg bat! —hots egin nuen nik, liluraz.

—Izotz multzo erraldoia, bai. Mendiak bezalakoak dira. Eta korronteak bultzata, korapilo batzuetako abiadura lor dezakete.

—Arriskutsuak dira, ezta? —galdegin nion nik tontoki.

—Bai, oso. Aurrez aurre joz gero, bere abiadurari zure untziarena gehituta, talka izugarria sortu eta, konturatzerako, hondoratu zara. Tentuz ibili beharra dago icebergekin, bai.

Kapitaina, piparen keak eraginda, eztulka hasi zen gelditu ezinik. Nik esku ahurraz kolpetxo batzuk jo nizkion bizkarrean, pasako zitzaiolakoan. Eta berriro ere lasaitu zenean, kontaktaren hariari heldu zion, gogoz:

—Jagolariak berriro deiadar egin zigun: «Iceberg bat eskuin aldetik. Zuzen-zuzen dator guganantz!».

Segundorik galtzeke, hil ala bizikoa zen maniobrari ekin genion estu eta larri. Lainoak, lodi samarra artean, ozta-ozta uzten zigun zerbait ikusten. Dena den, iparretik jotzen hasitako haizearen eraginez, lainoa bazirudien altxatzen hasita zegoela. Eta ikuspena pixka bat hobetuta,

gezurrezko mundu batetik irtenda bezala, icebergaren lehen trazak nabarmentzea eduki genuen. Izugarria! Sekula ikusi dudan handienetakoa! Ez zen normala hain handia izatea, ze, azken finean, nahiz eta Antarktida hurbil egon, icebergak argaldu samar iritsi ohi dira latitude haietara. Tira, ba. Jela puska berebizikoa zen. Baina... izotz tzarraren albo batean... Bazen zerbait, handi samarra berau... Oraindik hotzikara somatzen dut gogoratze hutsarekin. Eta laino difuminatuarekin batera, Antarktida hurbileko argi ahularen pean, zoritxarreko untzia kausitu genuen... icebergaren barruan zeharo sartuta!! Bai, halaxe da. Untziko gila, aurrekoa, izotzean guztiz sartuta zegoen. Talka hain izan omen zen bortitza, ze, iltzatuta bezala geratu ziren. Untziak, aurrealdean eta erdi aldean ere bai, zulo bana zuen agerian. Eta txikiturik, birrindurik eta xehakaturik zegoen alde guztietatik. Untziko atzealdea, berriz, airean zegoen, uretatik metro batera edo.

—Ez zegoen inor bizirik?

—Bizirik norbait han! Ez, mutil. Ez horixe. Dena den, ahalik eta gehien hurbildu ginen badaezpada ere, bai eta zenbait bengala eta oihu bota ere. Ez zigun inork erantzun ordea... katu baten miauek izan ezik.

—Erreskatatu al zenuten? —galdegin nion begiak zabal.

—Ja, ja! —barre egin zuen Mikel Arruabarrena kapitainak— Untzi osoa arriskuan jarri katu batengatik? Ja, ja —barre egin zuen berriro—. Gainera, nola uste duzu igo beharko genukeela "tranpolina" bezalakoa zen untzi hartara? Hegan? Ja, ja —ekin zion berriro barreari—. Katua ea salbatu genuen!

—Eta? —eten nion nik burumakur, nire ateraldiaz damutua.

Kapitainak bekokiari hatz egin, pipatik bafada bat hartu eta, begiak iraganerantz bueltaturik, pasadizoaren azkenari ekin zion:

—Tamalez ez geneukan ezer egiterik han. Eta gauzak horrela, icebergaren patuarekin bat egina zuen untzari begira geratu ginen luzaz, gure aurretik poliki-poliki pasa zen arte. Ikuspen hark bihotza kizkurtzen zigun, hain genuen zirrargarri... Ehun milia aurrerago-edo urtu egingo zen seguru, eta untxi-hondakinak itsaso asekaitez honek irentsiko zituen!

Bukatutakoan, hitzik egin gabe geratu ginen biok. Eta itsasoa beti suertatzen dela garaile pentsatu nuen etsita nire artean. Eta bitxi samarra iritzi nion neure pentsamendu honi, batez ere itsasoari giza nolakotasunik leporatzea taiugabea delako. Adibidez, itsasoari gorroto edukitzerik ez dago. Baina kalte txikiagoak sorrarazten dizkigutenei, ordea, bizitza osorako arrenkura gordetzen zaie erraz. Zer-nolako mendeku hartu, berriz, itsasoari, kalterik mingarrienaren iturri izan arren? Ezintasuna, besterik ez dago. Herioaren beraren eskutik ez etortzera, agian, mendekurik biribilena. Eta taiugabea zela banekien ere, neure artean zera esaten nion itsasoari: orain hildako bat naizela, orain min fisikoak sufritzerik ez daukadala, orain ikara sentitzeko gauza ez naizela... nirekin batera hil izan bazina bezala da. Nire heriotzak zurea ere badakarrelako. Nirekin batera bukatzen den errealitateak zure errealitatearen desagerpena eragiten duelako. Ni ez banaiz existitzen, bada zu ere ez orduan. Posible bada ezereza niretzat, bada zuretzat ere bai orduan. Zein beste

biderik geldi dakioke, bestela, ni bezain egoztrista den Izadi barregarri honi?

Honelakoxe pentsamenduak nerabiltzan buruan, harik eta Mikel Arruabarrena jauna, solasaldia bukatutzat emanik, zutik jarri zen arte.

—Ezin dut gehiago. Lotara noa. Ba al zatoz?

Bertan gelditzen uzteko eskatu nion, ez bainintzen oraindik ere logura. Eta berak baimena eman zidan, berehala jarraikiko nintzaiola hitzemandakoa.

Hain zen irrealak toki hartan, instant hartan egotea, ezen, burua txakur-ametsez betetzen zitzaidan. Aski nuen begiak ixtea, hamaika fantasia irudikatzen zeko.

Untzia poliki-poliki kulunkatzen zen, eskuin aldera orain, ezker aldera gero, doitasun matematikoz ia. Sentsazio paregabea nuen nire baitan. Eta biziro pozten nintzen han izateaz.

—Hozkirri dago, ezta? —entzun nuen nire atzetik—. Antza denez, pasadizo xelebreak dituzu gogoko.

Anjel Bihurriarena zen, gizon puska eder eta sendoa. Urteen joan-etorriek, makaldu baino, bazirudien lerdengotzen-edo zutela. Berrogei urte inguru jotzen nizkion, berrogeita hamarrak soberan pasata eduki arren. Burua gutxitan baizik ez zuen agertzen untziko gainazaletik, beti untziko galdaretan sartuta egoten baitzen, non ikatza eta sua baitzituen lagun. Horretaz gain, zertxobait iheskorra zen, zakarra izateraino iritsi gabe baina.

—Entretenigarriak badira... —erantzun nion adixkidekor.

—Bai eta barregarriak ere. Zera, buruak oraintxe eman dit bat... Kapitain ingeles bati buruzkoa. Itsasotso peto-petoa zen hura! Eta garagardoa maite zuen bere bizia baino gehiago. Zer diot! Bere amaren bizia eta bere senide guztiena baino askozaz gehiago ere bai! Ja, ja, ja! —barre egin zion bere ateraldiari—. *Blake* pirata beldurgarriaren ezpaletik zetorrela esaten zion mundu guztiari. Gaztelera, ordea, bazekien... bai eta andaluziar ahoskeraz jakin ere!

—Andaluziar ahoskeraz! —hots egin nuen nik harri eta zur—. Nola da hori, ba?

Anjelek, arkuak hausteraino barre eginez, algaraka segitu zuen. Azkenez lasaitu eta adierazi zidan:

—Bai. Haren ama, dirudienez, andaluziarra zen. Aita, ordea, *gentleman* bat.

Beste irri karkara bati eman zion, oraingo honetan labur irauin zuen arren.

—Hori bai, beraren gaztelera mordoilo hutsa zen. Eta nik ez dakit ingelesez, baina susmoa dut haren ingelesa ez zela Cambrigde-koa. Batez ere, zurrutari eman eta geroago!

Ateraldi bakoitza aitzakiatzat hartuta, barrez hasten zen.

—Baina atze gaiztoa ekarri zion edanaren bizio horrek. Behin itsasoan zegoela, mozkortu eta untzia suntsitu zuen arkaitz batzuen aurka. Itsasoa bare-bare zegoen batean gertatu zitzaion. Eta denek ezagutzen zuten hondo gutxiko zonalde arrokatsu hura. Marinela guztiak onik atera ziren handik, baita «Blake» kapitaina

ere, guk horrelaxe deitzen genion-eta. Eta erreskatatu zituztenean, mozkor eginda zegoen oraindik. Untziak hondora eta berak erre kara jo zuen, ondasunik gabe geratu zen-eta. Aseguru-etxeak, bertara erreklamatzera joan zenean, barre egin zion aurpegi-aurpegian. Arrazoi osoz, gainera. Txoriburu gizajoak oraindik bizirik dirau, bere zoritxarrerako. Eta portu ondoko tabernarik mixerableenetan topa dezakezu egun, Dover inguruan beti.

Aurrekoak baino ozenagoa izan zen barre algara jaurtiki zuen.

—Zeri egiten diozu barre orain? —galde egin nion zalantzati.

—Naufragio egunean... ba al dakizu zein pleita mota garraiatzen zuen?

—Pleita...?

—Bai, untziko zama, merkantzia alegia —erantzun zidan Anjelek ezinegonez.

—Ez, ba...

—Garagardo botilak! Ehundaka, milaka botila! Eta denak flotatzen!! Bi miliako inguruan botilak besterik ez ziren ikusten, zabunka eta kulunka, itsaso bare eta lasai hartan. Oraindik entzun daitezke kostaldeko herrietatik ateratako barre algarak!! Egunkari guztietan azaldu zen-eta! Garagardo lantegi bat ireki zuten Southampton-en eta... "Blake" izenarekin bataiatu zuten marka berria!!

Barre egiteko gogoari ezin eutsirik, nire barreak nahasi egin ziren Anjelen karkarekin.

Eta horrelaxe murgildu nintzen hordituta ere zirudien gau hartan, Euskal Herritik gero eta urrunago, nire guraso maiteak gogoan, ezin eutsiz nire bizigaleari.

Distantzia eta denbora desitxuraturik iruditzen zitzaizkidan. Eta nire bizitza bazirudien merkataluntzi hura bezain mantso bilakatzen ari zela: poliki, eder eta zuzen. Etxeratuko nintzen inoren aurrean ez lotsatzeko modu onean, jakingura aserik eta bihotza alai. Baina horretarako bazen oraindik denborarik. Eta beta edukiz gero, bata hor eta hemen bestea, pasadizo eta istoriotxo gehixeago belarriratuko zitzaizkidan. Bai eta laster asko belarriratu ere.

—Istorio guztiak, zoritxarrez, ez dira beti barregarri —baieztu zuen Anjelek serio-serio—. Gutxik dakite zenbaterainokoa den mingarri itxaropenik oro galtzea. Batez ere... zure untxiak hondora jota, naufrago zabiltzanean itsaso erdian, txalupa makal eta jendez gainezka den batean, urik eta jakirik gabe.

—Gertatu zaizu inoiz? —galdegin nion jakingura biziaz.

Anjelen begiek tristeziak bezala distiratu zuten. Eta ordura artekoa ez bezalako tonu melankolikoaz, erantzun egin zidan:

—Ez, niri zorionez, ez. Orain dela lau urte, ordea, naufrago batzuk aurkitu genituen. Ozeano erdian galduta zeuden! Egunak botata omen zeuzkaten bertan. Hiru aste, oker ez egotera. Hiru aste itsasoan, *aste asko* dira. Gainera, lehorreko jendea zen.

—Zer esan nahi duzu horrekin? —eten nion.

—Bidaiari untxi bateko naufragoak zirela esan nahi dut.

—Hara! —hots egin nion nik—. Naufragoak beti naufrago. Ez al da hala?

—Oker zaude —ihardetsi zidan berak—.

Gerratean, berdin al dio militarrek ala zibilak hiltzeak?

—Ez... —esan nuen herabe.

—Bada itsasoan ere berdin. Lehorreko jendea zibilak bezalakoak dituzu; eta marinelok, berriz, militar antzeko. Itsasoa dugu etxe. Ohituta gaude eguneroko erronka honetara. Heriorekin batera bizi gara gu. Astia eta beta izan ditugu-eta gure patuaren aurrean makurtzeko. Naufrago suertatzen bagara noizbait... Tira, ba. Gure lanbideko arrisku bat gehiago da, eta besterik ez.

—Ulertzen dut —xuxurlatu nuen.

Eta gizon hark erakutsitako ausardia zela-eta, bestelako begiez begiratu nion handik aurrera, mirespenez eta baita esker oneko ere, gizatasun irakaspen ederra eman berri zidalako.

—Bidaiari arruntak ziren ia denak. Lau gizon, sei emakume eta bost haur. Hamabost lagun guztira, beraz. Denbora guztian euri ura eta arrain gordina izan zituzten elikagai bakar. Iparrorratzik ere ez zuten...

—Marinelik bat ere ez zen beraiekin, orduan? — galdetu nuen nire betiko jakinminez.

—Bakar bat. Eta berari esker atera ziren handik bizirik... Guk erreskatatu genituen arte, behintzat. Hala ere,...

Isilune bat egin zuen aurrera baino lehen, hitzak ongi pentsatuz bezala.

—Ez didazu galdetu gauza bat...

—Zein? —galdetu nion bereziki axolaturik.

—Euriko ura pote batean, adibidez, bil daiteke. Edota erori ahala edan, besterik ezinean. Baina... nola uste duzu zuk harrapa daitekeela arrain bat, ez baduzu

sare edo kainarik? Eta batez ere, zer erabiliko zenuke beita edo amuzkitzat?

—Tira —hasi nintzen zer erantzun ez nekiela—. Ona galdera!

—Lehen arraina arrantzatuta, ez da zail. Arrain horixe erabil dezakezu-eta beita gisa, eta kitto. Lehendabiziko arrain hori harrapatzea, berriz, hortxe dago kokka!

—Dударик ez, дударик ez —nik, gero eta jakingurago.

—Hona zer otu zitzaion gure itsas gizonari: eskuko haragi-puskak labanaz ebaki, eta iltze gakotu baten puntan jarrita, horixe zuten beita!

—Neke gabarik ez da bizitzerik! —bota nuen nik Santxo Pantzarena eginez, sarkastikoki—. Aizu...

Anjeli irriño bat margotu zitzaion ezpain txokoan, iragarrita balu bezala buruan nerabilena.

—Eta, luze joan al zitzaion lehen arraina harrapatzea...?

—Ji, ji —barre egin zuen Anjelek lotsaz eta eskandalurik gabe.

—Tira, arnas batean naukazu-eta —premiatu nuen.

—"Besamotz" esaten diote egun!

Niri ere eskapatu zitzaidan barretxo bat.

Segituan, seriotasuna berreskuratuz, erantsi zuen Anjelek:

—Zergatik egin zuen galdetu ziotenean, ba al dakizu zer erantzun zuen?

Burua ezker-eskuin mugiarazi nuen.

—Bada zera «Haurrengatik egin dut. Pena

izugarria ematen zidaten-eta». A, hura bai gizona!

Anjelen aurpegi belztuak distiratu zuen ilunean. Gero, kexu antzeko zerbait botaz, poliki-poliki jarri zen zutik. Ikatza bota behar zion bere galdara asekaizari. Beraz, agur esan genion elkarri.

Gauarekin, itsaso itxuraz bare harekin geratu nintzen bakarka. Eta gizakiari beti lagun egiten dion bakardadea sumatu nuen gogor, horrek beldurrik sartu ez bazidan ere. Hain bitxia zen den-dena... Ni han, uretan ildo bat uzten zuen untzi hartan... «Untziak, behintzat, ildo bat uzten du» pentsatu nuen melankoliaz, «Baina nik. Zer uzten dut nik?». Itsasoan itotako bat izaten irudikatu nuen nire burua, une batez; eta itsasoa nire zainez nagusitzen, jarraian. Gero, hatz gakotuekin orraztu nuen ilea, ideiak harrapatu nahian-edo. «Eta nik, zer uzten dut nik?» galdegin nion berriro nire buruari...

Izar bat ikusi nuen zeruko oihal beltzean dirdiraka. Baina segituan itzali zen, sekula izan ez balitz bezala.